

JOSÉ RAMÓN MARTÍNEZ

«Hobien mapari bultzada eman behar zaio, lotsagarria baita»

José Ramón Martínez Sartagudako zinegotzia da, Pueblo de las Viudas elkarteko kidea eta Memoriaren Parkeko arduradunetako bat. Azaroaren 14an, 1936ko biktimen legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak, altxamendu militarren ondorioz hildakoei eta errepresioa jasan zutenei babesa ematea helburu duena. Horri buruzko hainbat galdera luzatu dizkiogu.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

1936ko biktimen Legea onartu berri du Nafarroako Parlamentuak. Ospatuko zenuten Sartagudan.

Guretzat aurrerapauso garrantzitsua izan da, urte mordoa baitaramagu 36ko biktimen aitortza aldarrikatzen. Memoriaren Parkeari dagokionez ere, esanguratsua izan da, inauguratu zenetik ari garelako Nafarroako Gobernuak kostua bere gain har dezan eskatzen, eta beti saihestu dute ardura, aitzakiak tarteko. Orain heldu egin beharko diote, eta Parkea mantendu ez ezik, hobetu eta babestu egin beharko dute.

Lege proposamena onartzen denetik martxan jartzen den arte aldea dago. Noiz ikusiko dira lehen emaitzak?

2014. urtean barrena izatea espero dugu. Ea egia den. Herriko elkartera hots egin beharko dute Parkearen mantenuaz hitz egiteko, eta udaletxera ere bai. Erraz konturatuko garamartxan jarri ote diren.



José Ramón Martínez (erdian) Sartagudako Memoriaren Parkean.

Herrikoek ordu mordoa eskaintzen diozue Parkeari. Zaintzan ez ezik, bisitan heltzen direnei azalpenak ematen aritzen zarete egun batean bai eta hurrengoan ere bai. Zein da Memoriaren Parkearen mantenu-kostua?

Bakarren batek 6.000 euroko kopurua aipatu zuen, baina ez dakit nondik atera den hori. 15.000 eta 20.000 artekoa dela esango nuke, eta ez da sobera, mantenuan egiten den lana kontuan hartuta.

Lege onartzea hastapena besterik ez da, nolabait esanda. Zein da hurrengo pausoa?

Ahalegin berezia egin beharko litzateke gorpuk lurpetik ateratzeko. Senide zuzenenak badoaz apurka, eta irtenbidea eman behar zaie al bait azkarren, hil aurretik aurkitu nahiko bailituzkete gorpuzkiak. Horrez gain, izendapen frankisten gaia dago, plaza, monumentu eta

gainerakoen izendegia, eta hobiena, desagertuena, gerra zibilari buruzko ikerketarena. Hobien mapari bultzada eman behar zaio, lotsagarria baita; urtean 24.000 euroko aurrekontua barregarria da. Horrek, bakar baten zenbait ordutako lana besterik ez du ordaintzen. Bestalde, horretan ariko denak bere kabuz ikertu beharko luke, guk dena eginda eman behar izan gabe; hona etorri eta behar den tokietan arakatu beharko luke mapa taxuz osatzeko. Motelegi doa hau. Guk ere eman genituen Sartagudako biztanleen datuak, bi urte pasatu dira geroztik eta datuak ez dituzte basean sartu ere egin.

Biziagotuko al da prozesua aurrerantzean?

Hala nahi genuke, baina ikusten dugunagatik, UPNk –eta PPNk berdin, kasu honi dagokionez bat eta bera baitira– ez du sekula gaia aitzinatzeko borondaterik erakutsi. Egonean egon daude, besterik gabe denborak aurrera egin dezan.

Legeak ez al ditu behartuko?

Sobera jakina da Barcinaren gobernuak zer egiten duen Parlamentuko legeekin: gustuko dituenak aitzinatu eta gustuko ez dituenak aintzatzat hartu ere ez. Esango nuke, irakurri ere ez dituztela egiten. Bost axola zaie, haiek hitz egitea paretarekin hitz egitea bezalatsu da. ■



MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)